

MOZIO ARRUNTA

ATOTXAKO GELTOKIAN TREN-ZERBITZUA ETENA EGON DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Atotxako geltokian tren-zerbitzua etenda egon dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 28an, Renferen aldiriko tren-zerbitzua 6 ordu inguruz egon zen etenda: 12:30ak arte ez zen berriro martxan jarri tren zerbitzuaren trafikoa. Etenak eragina izan zuen milaka donostiarren artean.

Donostiako geltokia AHTra egokitzeko lanak ez dira garaiz bukatu eta horrek aurreikusi gabeko zerbitzu-etena sortu zuen. Horren ondorioz, milaka erabiltzaile garraio-aukerarik gabe geratu ziren alde aurretik abisatu gabe eta bestelako garraio alternatibarik gabe. Gipuzkoako Renferen aldiriko trenen kudeatzailearen arabera, arazoa ETSk sortu zuen, ez baitziren Donostiako Atotxako geltokian egiten ari ziren planifikatutako obrak behar bezala bukatu.

Etenaldia egon zen 6 ordu horietan ez omen zen autobus bidezko aukerarik eskaini. Eta horren ondorioz, ikaragarri igo zen auto pribatuaren erabilera.

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostiako Atotxako tren geltokian oinarritzko azpiegiturei lehentasuna eman diezaiela (ETS eta Renfeko tren-zerbitzuei), tren

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

zerbitzu horien maiztasunak eta ordutegiak bete ahal izateko, beste azpiegituren aurretik.

2. - Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostiako Atotxako geltokiko obrek 2022ko azaroaren 28an Renferen tren-zerbitzuetan eragindako arazoari buruzko informazioa eman eta ardurak har ditzan publikoki.

3. - Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostiako Atotxako geltokian 2022ko azaroaren 28an izandako anabasa berriro gerta ez dadin, berriro ere tren-zerbitzuaren etenaldia emango balitz, bidaiarientzako informazio eguneratua eskaintzea une oro bai webgunean, bai aplikazioan, baita geltokian bertan ere.

4. - Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostiako Atotxako geltokian 2022ko azaroaren 28an gertatutakoa ez errepikatzeko, berriro ere tren-zerbitzuaren etenaldia emango balitz, autobus bidezko alternatiba eskaini dezala bertako bidaiarientzat.

4. - Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Donostiako Atotxako geltokian 2022ko azaroaren 28an gertatutakoaren inguruko ikerketa bat ireki dezala eta behar denaren gaineko ardurak eskatu ditzala.

Donostian, 2022ko azaroaren 29an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea